



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2016KO EKAINAREN 14EAN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Irene Garcia Palacios.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Josune Estella Arranz.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

***2016/05/31KO OHIKO BILKURAKO AKTA.**

Batzarkideek 2016ko maiatzaren 31ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

***2016/06/08KO EZOHIKO ETA PREMIAZKO BILKURAKO AKTA.**

Batzarkideek 2016ko ekainaren 8ko ezohiko eta premiazko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk.: KE.01/2016-0125

Ikusirik

Usurbilgo Udaleko Euskararen Ordenantzak bere 39. artikuluan dio Udalak neurri egokiak hartuko dituela euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin. Horretarako, Ordenantzaren arabera, bitartekoetako bat euskararen zabalpen funtzionala da, alegia, euskaldunen kopurua handitzea eta hobeagotzea, euskara ez dakitenek ikasi dezaten bideak jarri, eta dakitenak alfabetatu daitezen bitarteko egokiak bideratzea.

Usurbilgo Udalak oso garrantzitsutzat irizten dio helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteari. Horregatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2015-2016 ikasturtean zehar euskalduntze ikastaroetara joan diren Usurbilgo biztanleei beka emateko.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru laguntzak arautzen dituena.



Usurbilgo Udala

- Diru laguntzak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa (GAO, 2008/07/01).

Hau guztia kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: euskara ikasleentzat diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eranstean zaizkiolarik.

Bigarrena: Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidetan azaltzen diren diru izendapenak: 1.4200.480.335.00.01 2016 (A 312/2016)

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena: interesatuei epe hau ematea eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin: 2016ko ekainaren 27tik uztailaren 7ra bitartean (biak barne)

Bosgarrena: Oinarrien berri kontuhartzaileari emango zaio.

3.- AISIALDIKO BEGIRALE EDO ZUZENDARI IKASTAROAK EGIN DITUZTENENTZAT DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk: 01/2016-126

Ikusirik

Usurbilgo Udaleko Euskararen Ordenantzak bere 39. artikuluan dio Udalak neurri egokiak hartuko dituela euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin.

Aisialdia gizarte bizitza horretako zati bat da eta gure gizartean gero eta garrantzia handiagoa duena gainera.

Aisialdiko begirale eta zuzendariak berariaz eta era egokian prestatua egotea garrantzitsua ikusten du udalak. Are gehiago, prestakuntza hori euskaraz jasotzea garrantzitsua iruditzen zaio udalari.

Horregatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2015-2016 ikasturtean zehar aisialdiko begirale edo zuzendari ikasketak egin dituztenentzako biztanleei bekak emateko.

Bide honetatik, Usurbilgo Udalak aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa egin dutenentzat diru-laguntzak bideratzeko diru-laguntza oinarriak prestatu ditu.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru laguntzak arautzen dituen.
- Diru laguntzak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa (GAO, 2008/07/01).



Usurbilgo Udala

Hau guztia kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzat diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eransten zaizkiolarik.

Bigarrena: Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidetan azaltzen diren diru izendapenak: 1 4400 481 326 00 01 2016 (A 313/2016)

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena: interesatuei epe hau ematea eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin: 2016ko ekainaren 27tik uztailaren 8ra bitartean (biak barne)

Bosgarrena: Oinarrien berri kontuhartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:45etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.